

#### TESTUA ETA ARGAZKIAK



Iosu Alberdi Balzategi  
(Bergara, 1966)

Begarako Pol-pol Mendi Taldean hezia, gaur egun Bilbao Alpino Clubeko kidea da. 2014tik 2019ra Mendixiki taldeko buruzagietako bat izan zen. 2015ean Lemoizko Etzandarri Euskal Mendi Taldeko sortzailetako bat izan zen eta gaur egun taldearen sustatzailetako bat da.

Atxuloganan

# MENDITXIKI ITZINA ZURI-BELTZEAN

**Etzandarri Mendi Taldea Lemoizen sortu zen 2015ean eskualdeko ume eta gaztetxoek euskara eta mendia uzta ditzaten. Oraingo honetan, 2024ko abenduaren 8an, Itzinara egindako ibilbide interesgarri hau partekatzea dator.**

Gorbeia parke naturaleko harri bitxietako bat da Itzina. 1995 urtetik biotopo babes-tua den mendigune ezkutu hau menditontorrez inguratutako goi lautada bat da. Orain 110 milioi urte, ur epel eta sakonera gutxiko koral arrezifez beteriko itsasoa zena, gaur egun, kareharriaz osatutako formazio karstikoaren adibide garbia dugu. Milioika urte hauetan, euriak ka-

reharria higatu eta desegin du, haitzean pitzadura sakonak eginez (lapiazak) eta hondo-uneak (dolinak edo trokak) sortuz, luraren gainazala guztiz pitzatuta eta lur azpia erabat zulatuta utzi arte. Prozesu horren ondorioz, Itzina haitzulo eta leizez beterik dago eta oso leku erakargarria da gaztetxoekin joateko edozein urteko sasoi.

Gure asmoa bertako altxor batzuk ibilbide batean lotzea da. Eguraldi makurra daukagu egun hauetan, baina, abisu eta alerta artean, tarte bat izango dugulakoan irteera mantentzea erabaki dugu. Elurratetik abisu horia daukagu 800 metrotik gora baina arratsaldera arte ez da aler-tarik indarrean sartuko. Beraz, bizkor ibili behar gara.

Itzina elurtua ikusteak gure imajinazioa hegan altxatu du baina hala ere Pagomakurren bertan, baldintzak aztertuta, balioztatuko dugu ibilbidea egin ala etxera itzuli, hau ere ikasi behar baitute gure mendizale gazteek. Bidean ateri mantendu da eta soilik Pagomakurrera (883 m) heltzen hasi da elurra egiten. Emeki ari du eta ozta-ozta zuritzen du bertan. Horrela, oraindik prezipitazio handiak heldu arte ordu batzuk ditugula eta elur geruza ez dela oztopo handirik izango baieztatu ondoren, ibilbidea egitea erabaki dugu.

Eskuinera daukagun atsedeen-lekutik hasi gara. Bidezidor batek atsedeen-leku amaierara eraman gaitu eta Pagomakurreko elur lapats atzean utzita konifera baso batean sartu gara. Hezegune bat da eta putzu asko daude elur izara zulatzen. Bidea haien artean sigi-saga doa eta egurrezko zubi pare bat gurutzatu ditugu harkaitz gune batera heldu arte.

Bideak, maila natural batzuk aprobeztatuz, harkaitz-horma gaintitzen du eta konifera-landaketa atzean utzita, garaiera irabaziz, mendiko zelai gune batera eraman gaitu. Atxulo aurreko (Atxulaur) landetan gaude eta bertatik, jada, Atxulo ikusten dugu. Elur maindire zoragarri batek estaltzen ditu zelaiak.

## Kondairak dioenez, bertan zezensuzkoak edo zezengorriak bizi dira

Gora egiten dugun heinean aldapa gogortu arren, di-da batean Axkorrigian-Lekanda gailur-lerro azpian gaude. Cairn handi batek markatzen du Atxulora igozten den zidorraren hasiera eta hura hartuta haitz-paretatik gora egiten duen pagadi xarmagarri batetik heldu gara Atxulora (1086 m).

Atxulo da Itzinako sarrerarik ikusgarriena. Kondairak dioenez, bertan zezensuzkoak edo zezengorriak bizi dira, Itzinako sarrera arrotzengandik zainduz eta, sinesgaitza bada ere, hantxe topatu ditugu gaur ere bai. Hiru dira Mariren bizilekua babesten daudenak. Elurretan are gorriago iruditu zaizkigu baina ez omen gaituzte arriskutsuak ikusi eta,

isil-isilik eta bakean utzita, atea pasa eta berehala eskuineko paretako harrietatik, eskuaz lagunduta, Atxulo gainera igo gara: Atxulogana (1117 m). Elurrak barra-barra ari du.

Denbora galdu barik jaitsi eta Atxuloko troka pasa ondoren, norabide-zutoin batera heldu gara. Supelegorretantz jo dugu. Bidezidorrak, lapiazetik, dolina eta troken artean egiten du aurrera. Hirurehun bat metro eginda, GPS lagun, zidorra utzi eta aldapan gora Arkuatxako tontorraren (1060 m) bila abiatu gara pago eta harkaitzen artean. Plaka txiki batek markatzen du tontorra. Itzinaren erdi-erdian gaude eta elurra mara-mara ari du. Paisaia zoragarria da.

Bidezidorrera itzuli eta laurehun bat metro egin ondoren, Itxulegor baino pixka bat lehenago, mugarriekin eta pintura gorriko arrastoeekin markatutako, ezkerrera abiatzen den bidezidorra hartu dugu Arkuatxa (edo Axlabor) tunelera joateko. Tunel natural hau benetan altxor bat da eta asko gozatu dugu. Elurra egiteari utzi dio eta argitu du. Gertu, nonbait, Itzinako Erdiko Arrail Handia dagoela ere irakurri dugu baina, gaur behintzat, bilatzeari ez



ekitea erabaki dugu eta etorri garen bidetik Itxulegorretantz abiatu gara.

Gure harridurarako espeleologo errusiar batzuk topatu ditugu kobazulotik irteten. Haiekin solasean apur bat aritu ostean Supelegorretantz (992 m) abiatu gara eta bidezidorra jarraituz sarreraraino heldu gara. Mariren egoitza hau itzela da benetan, 20 m x 20 m-ko portiko karratu horrekin, baina zoritxarrez itzultzea tokatzen da.

Beste behin, Itzinak gure itxaropenak bete ditu. Leku berezia da benetan eta, zer esanik ez, gaur bezala, zuri-beltzean. Atxulora itzuli eta konturatu orduko Pagomakurrera heldu gara. Bazkaltzeko etxean, alertatik salbu.

Arkuatxa (Axlabor) tunela

